

BASKEGURREK EGURRAREN VI. ASTEA EGINGO DU, ONLINE, URRIAREN 12-18AN

Basogintzaren (egurra) sektorearen balio-katea balioesteko egingo diren jarduerari webgune honen bidez jarraitu ahal izango zaie: www.baskegur.eus

Basogintzaren (egurra) sektoreak pandemiaren aurreko negozio-bolumena berreskuratzea espero du 2021eko bigarren seihilekoan

Bilbon, 2020ko urriaren 8an. Baskegurrek, Euskadiko Egurraren Elkarteak, Egurraren VI. Astea egingo du urriaren 12tik 18ra. COVID-19ak eragindako osasun-egoera dela-eta, jarduerak nagusiki online izango dira. Jarduera presentzialek edukiera mugatua izango dute, eta www.baskegur.eus webgune berrian ere jarraitu ahal izango dira.

«Basogintzaren (egurra) sektoreak etorkizun oparoa dauka; izan ere, bioekonomia garatzeko giltzarri izango da, eta oinarrizkoa Euskadik ere Europako Garapen Jasangarrirako Estrategiari jarrai diezaion. Egia da garai konplikatua bizitzen ari garela: banda marroiaren aurkako borrokaz gain, COVID-19ak eragin dituen ondorio ekonomikoak ditugu. Hala ere, beste sektore batzuk baino hobeto eutsi diogu egoerari –pandemiaren faserik gogorrenetan funtsezko sektore izendatu izanari esker–; horrek ahalbidetu du produkzio-ehunaren zati handi batean jarduerari eustea. Banda marroiari dagokionez, baldintza meteorologikoak 2018an baino hobekiak izan direnez, orain dela bi urte baino gutxiago hedatu da. Halaber, aurrerapauso garrantzitsuak egin ditugu gaitzaren aurkako tratamendu eraginkorrak ezagutzeko, eta frogatu dugu ingurumenean kalterik sortu gabe aplikatu daitezkeela» dio Oskar Azkarate Baskegurreko zuzendari nagusiak.

Koiuntura ekonomikoa basogintzaren (egurra) sektorean

Baskegurrek bigarren koiuntura-inkesta bat egin du bere bazkideen artean, COVID-19aren pandemiak Euskadiko basogintzaren (egurra) sektorea osatzen duten azpisektoreetan eta aurreikuspen ekonomikoetan duen negozio-bolumenaren

inpaktua ezagutzeko. Azterketak islatzen du bigarren eraldaketak, baso-jabeek, arotzeriak eta altzariek, eta makineriak eta instalazioek negozio-bolumena %9 inguru murriztu dutela. Aurreko inkestarekin alderatuta, errematatzaileen negozio-bolumena zertxobait jaitsi da azken hilabeteetan, osasun-alertak eragindako krisiaren lehen faseari ondo eutsi bazioten ere, eta makinaren eta instalazioen azpisektoreak gorakada txiki baten berri eman du. Halaber, arotzeriako eta altzarigintzako enpresetan portaera hobe dagoela nabarmendu behar da, pandemiaren hasieran kalte handiena izandako sektorea baita, baina susperraldi-egoeran dagoela erakusten du. Krisiari aurre egiteko, enpresa askok beren merkatu geografikoa dibertsifikatzea, digitalizatzea, tamaina murriztea edo beste merkatu batzuetara birbideratzea erabaki dute.

Aurreikuspen ekonomikoek dagokienez, basogintzaren (egurra) sektoreak pandemiaren aurreko negozio-bolumena berreskuratzea espero du 2021eko bigarren seihilekoan. Izan ere, inkestatutako enpresen %15ek ABEEE bat eskatu badu ere, horietako batek ere ez du epe laburrean mantentzea planteatzen. Baskegurrek egindako galdeketan, kontsultatutako enpresek uste dute beharrezkoa izango dela finantzaketa publikoko iturriak eskuratzea, administrazio-izapideak malgutzea eta enpresak une bakoitzeko errealitatera egokitzea, jarduerari eusten laguntzeko.

Egurraren Astea

Egurraren Astea urriaren 12an, astelehena, hasiko da, «Basoen osasunari buruzko erronkak eta aurrerapenak» online jardunaldiarekin; gai horretan azken urteotan egin diren lanen balantzea egingo da, eta etorkizunean egin beharreko urratsak aztertuko dira. Topaketan Baskegur, Neiker, Hazi eta SNIACEko adituak izango dira, baita Zeelanda Berriko profesionalak ere.

Bi urtean behin, Euskadiko Egurraren Astearekin batera, Egurtek ere egiten da, oraingo honetan urriaren 14-16an. Baskegur, Egurtek antolatzen dutenen arteko bat izateaz gain, Jardunaldi Teknikoak antolatzeaz arduratzen da; horiek, oraingo honetan, bioekonomiaren garapenean ardaztuta egongo dira. «2020a giltzarria izan da Euskadiko baso-bioekonomiaren estrategia zehazteko; izan ere, Bioekonomiaren Euskal Aliantza abiarazi da eta Basotek eratu -I+Gra bideratua dagoena-. Bi foro horietan, elkarte oso presente dago; proiektuak bultzatzen ditu zura erreferentziazko material gisa kokatzeko, eraikuntzan, kimika berdean eta balorizazio energetikoan», dio Azkaratek. Jardunaldi Tekniko hauetan, bertako adituez gain, Kanadako eta Finlandiako adituak ere arituko dira.

«Mundu mailan aldarri orokorra entzuten da, energia eta produktu natural eta berriztagarriak eskatuz. Alde horretatik, optimistak gara, zura baita bioekonomiaren aldeko apustuari eustea eta petrolioarekiko gure mendekotasuna gutxitzea ahalbidetu

dezakeen material ugari bakarra. Zura erabiltzean CO2 isurketak eta hondakinak gutxitzen direnez, ingurumenarentzat onuragarria da», adierazi du Azkaratek. Jardunaldi Tekniko horietan, tokiko adituek eta Kanadako eta Finlandiako hizlari ezagunek parte hartuko dute. Bi herrialde horiek nazioarteko erreferentzia dira egurraren sektoreko ikerketaren eta garapenaren esparruan.

Egurraren Astea sortzean, sektoreko profesionalen lana jendarteratzeko apustua egin zen. Ate irekien jardunaldien ordez, online bisitak egin ahal izango dira; horien bitartez, mendian, zerratokian eta zura eraldatzen den fabriketan egiten den lana ezagutu ahal izango da. Maderas Saratxaga enpresako lan-talde batekin goazelarik, errematatzaileen lana ezagutuko dugu. Maderas Aguirre familia-zerratokiaren errealitatea ere ezagutuko dugu, baita Lana kooperatibaren –mundu osoan zehar saltzen diren hiru geruzako oholak egiten dituen– egunerokoa ere. Erreportaje horiek guztiak Baskegurren webgunean emango dira; horiekin batera, sektorearentzat eta gizartearentzat baso-jabeek duten balioa erakusten duten elkarrizketak ere eskainiko dira. Gizon-emakume horiek hazten dituzten basoak giltzarri dira klima-aldaketaren aurkako borrokan, eta, halaber, giltzarri dira bioekonomiaren garapenari eusteko ezinbestekoa den lehengaia eskura izan dezagun.

Astean zehar hainbat hitzaldi eta eztabaida ere izango dira, hainbat gairi buruz sakontzeko, basoen onura ekosistemikoak eta egurrezko eraikuntzan egindako azken aurrerapenak, besteak beste. Azken bilera hori EGOIN enpresarekin egingo da Ingurubide-Berdeagon. Gainera, edizio guztietan bezala, egurraren mundua eskolara hurbilduko da, Zeanuriko eskolako Lehen Hezkuntzako ikasleentzako jolasen bidez.

Baskegur-ek, Euskadiko basogintzako eta egurgintzako elkarte desberdinak biltzen ditu: ugazabetan hasi eta ustiakuntza, basogintzako lanak eta lehen eta bigarren transformazio prozesuetara arte, baita pasta-papera eta bioenergiara ere.